

KUDEAKETA-POLITIKA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da Osakidetza, eta hura osatzen duten Erakunde Sanitario Integratuetako bat da Tolosaldeko ESIa.

Tolosaldeko ESIaren helburua herritarren osasun-eraketak **segurtasunez, beritasunez eta efizientziaz** hobetzen laguntzea da. Horretarako, Tolosaldeko herritarrak **gure jardueraren** ardatzean ipintzen ditugu, eta hainbat asistentzia mailatako **profesionalen taldeak** ditugu. Azken horiek harremanetan daude elkarren artean eta gainerako osasun-eragileekin, herritarren **jarraitutasun asistentziala** lortzeko eta **gizartearen onura** erdiesteko. Hala, lehentasuna ematen dio komunikazio-kanal efizienteak ezartzeari, Tolosaldeko ESIa osatzen duten pertsonen kontsulta eta parte-hartzea sustatzeko.

Tolosaldeko ESIak erreferente izan nahi du laguntza-zerbitzuen arloan bere osasun-eraketengatik, eta profesional sanitarioak erakartzeko gaitasuna izan nahi du.

Hori dela eta, bat gatoz ondoko printzipio hauekin:

- gobernu ona
- profesional bikainak
- berrikuntza
- jasangarritasuna
- segurtasuna
- eta pertsonen gogobetetze-maila handia.


Tolosaldeko ESIa inguruarekin konprometituta dago eta horren seinale dira gauzatzen dituen gizarte-erantzukizun korporatiboko jarduerak. Halaber, lan-baldintza seguruak eta osasungarriak bermatzeko konpromisoa du, eta jarduerari lotutako arriskuak gutxitzeko edo deuseztatzeko prebentzio-jarduerak egiten ditu. Bestalde, pertsonak eta ingurumena babesteko eta ingurumenarekiko kutsadura saihesteko neurriak hartzen ditu, besteak beste, erosketa berdeko irizpideak sustatuz, efizientzia energetikoa bultzatuz, erakundeko profesionalak sentsibilizatuz eta inplikatur. Tolosaldeko ESIak erabiltzaileentzako, profesionalentzako eta beste interesdun batzuentzako balio erantsia duten berrikuntza- eta

ikerkuntza-proiektuen aldeko kultura sustatzen du, bai eta horiek gauzatzea ere.

Xede hori betetzeko tresna moduan, Tolosaldeko ESIak prozesuen kudeaketan eta etengabeko hobekuntzaren filosofian eta konpromisoan oinarritutako kudeaketa-sistema integratu bat erabiltzen du. Kudeaketa-sistemak eraginkortasunez biltzen ditu prozesu guztiak eta dagozkien euskarri-tresnak, gure jarduera arlo guztietan aplikatu beharreko legea betez gauzatzen dela bermatzeko, baita kalitatez ere, inguru seguru eta osasungarrian, ingurumena errespetatuz eta sistema horren erreferentziako arauetatik eratorritako baldintzen arabera.

Zuzendari gerente gisa adierazten dut, adierazpen hau sinatuta, nik eta erakundeko gainerako kideek adierazpen honen edukiarekin aldeko konpromisoa dugula.

Tolosa, 2019ko maiatzaren 24a



Osakidetza
TOLOSALDEKO ESI
OSI TOLOSALDEA
GERENTZIAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

Sin.: TOLOSALDEKO ESIko zuzendari gerentea